

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

325n. zenbakia

2007 otsaila



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

5.- EGAZTIAK ZELAN BIZI DIRAN (II)

GORPU-JALEAK

Saia lenengo, gero bere ondoan beste bi edo iru arrapari. Geienetan leoiak il dauan piztiaren inguruan itxaroten dabe eta leoiak eta txakalak aragi ilbarriz bete eta lotara doazenean, orduan datoz txori gorpu-jaleak. Egaz doazenean ederrak. Lurrean dagozanean motzagoak. Oneik garbitzen dabe lurra.

KOLIBRIAK

Txorien artean ederrenetariako da. Ameriketara bizi da eta bere koloreak ez dira lurarenak, argi-argiak baiño.

Egaz doazenean erlearen antzeko zaratea egiten dabe egoak segundoko 50 aldiz dardaratuz. Aurrerantz naiz atzerantz egin leike egaz.

Txoririk txikiena da, gramo bi pisua eta bere gorputza besteen antzara ondo eratua da: biotza, gibela, urdailla...

Zomorroak eta lore-eztia xurgatzen dauz, min luzearen bidez.

Amazonas-aldean bizi dira asko, Andeetan, Mexiko'n eta Kanadak'n be bai.


ERAKUSLEAK

Oneik basoan, gure inguruan agertuko dira abesten, zabal. Gero apur bat urrindu egiten dira eta jarraitzen ba'dautsagu berak eroango zaitu zugazt-ondo batera et an geldituko da. Ondo begiratzen ba'dozu laster ikusiko dozu baso-erleen ezta.

Guk ezta batzen dogunean, erakuslea urreratuko da toki aretara, an geratzen dan argizaia jateko. Ez dau jaten ez ezirik eta ez erlerik. Ondo izango da guk berari esker onez zer-jana iztea.

Afrika'n olako asko dago eta ango gizonakaz egiten dabe alkar-lana

OLAZAR'tar Martin'ek



Martin arrantzale

AFRIKA: 50.- NIJERIA

Auxe da Afrika osoan biztanklerik geien dauan laterria, berrogei milloi dira, leiñuetan banatuta eta eundak izkuntza mintzatzen.

Arzorik aundiena leiñuetan eta izkuntzetan batasunik ez eukitea da, baiña Nijeria laterri aurreratua da.

Lurra bera be askotarikoa da: Iparrean laua eta legorra Sahara lez. Or ez dago ezelako zugatzik. Egoaldean mendi txikiak eta baso bero ta buziak.

Iparreko biztanleak arabiarak eta artzain ibiltariak dira eta ardiak bedartzarik bedartza darabillez. Eta erlejiñoz musulmanak dira, batzuk fetitxistak be bai, milloi pare bat katolikuak.

Egoaldean leiñu txiki asko daukaguz, baiña ba-doa Nijeria'ko errietara batzen eta onein lana porlanean, oial eta narruak atontzen eta metalean izaten da.

Batzuk sugeak ateratean eta eziten irakasten dabe.

Gizaki basatiak ibiltzen dira leoi nabarez jantzita, besteak ilten.

Asko katigu eroan ebezan Antilletara. Gaur ikasle onak dira.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARIZTIMUÑO'TAR JOSE "Aitzol"

Buru eta biotzez gizon izan ziñan argi ta maitasuna izar gorri antzera zenduzan.

Jaiotzaz sortu ziñan seme berezi eta Euskalerra zuri adi egoan. maitari.

Langilleria egon negarrez urtzen lanaren gogorkeriz arkaitzpeko miñetan lertuten.

Gizonaren samiñak mintzen zinduzan asko lan gogorretan miseriz ikusirik lorrian.

PAULIN

10.- EDESTIA:LEGE ZARRAK ETA NEGARRAK

“Jaungoikoa eta lege zarra” izan zan euskaldunen oiua Karlos'tarren guda-ezkeru. Areik oiukatzen eben “Fueros y religión”.

Baiña zer da lege zarra?

Euskaldunak beti izan dogun, geure legeak geuk egiteko eskubidea dala esango neuke nik. Eta geroago legeak eurak.

Lege orreik Gernika'ko batzarretan onartzen ziran, korrejidorearen aurrean. Korrejidore au beti izaten zan Euskalerritik kanpoko eta erregeak izendatua. Beronek ez ekian euskerarik eta batzarretan erdera egitera beartzen ebazan euskaldunak. Gaztelarak irakurten eta idazten ez ekiana batzarretik kanpora botaten eben. Kanpotarren menpean beti?

Giro oker orretan egin ziran gure lege zarrak. Asieran idatzi barik egoan legedia, baiña gero XIV gizaldian eta XVI'ean idatzi ziran erderaz.

Urte asko ez dirala euskeratu ebazan Pedro Puxana abade arabarrak Au Oletakoa zan eta amagandik ikasi eban euskerea Bizkaikoa izan zan, bera arabarra izan arren.

Lege zar orreik gastelarrak begira egozala egiñak izan arren, iñoz ez dira izan gastelarren eta España'tarren gogokoak.

Karlostarren gudak egin ziran España'n Karlos ala Isabel errege izango zan ebazteko. Ez zan ori gure arazoa. Baiña Karlos lege zarren alde egoan, liberalak, ostera, Isabel'en jarraitzailleak, lege zarren aurka. Orregaitik euskaldunak Karlostarren alde egin ebezan guda orreik.

Lenengo guda Bergara'ko besarkada ospetsuagaz amaitu zan. Espartero'k bere berbea emon eban Lege Zarra España'ko Lege Nagusiaren barruan bere ezpategaz zainduko ebala. Euskaldunak berba ori onartuta izki-lluak emon eutsuezan... Espartero'ren ezpatea izan zan gure lege zarrak kentzeko alegiña egin ebana. Gero 1976n. urtean kendu euskuezan azkenengo lege zarrak

Euskaldunak negarrez geratu ziran lege zar barik. Orrean artean nagusi Otxandio'ko Arrese Beitia Santugin bertsolaria dogu

Esan dogun legegintza ori Bizkai'ko legeai dagokie, baiña bardin-antzean jazo da Gipuzkoa'ko batzarrakaz eta Araba'n egoan Arriaga'ko Kofradia'gaz eta apur bat lenago, bear ba'da, iparraldeko erri-eskubideakaz. Oneik Frantze'ko Iraultza-aldian kendu ebezan. Gero Napoleon'ek barriro.

Gure inguruko jentea beti daukagu al daben guztia guri kentzen.

OLAZAR'tar Martrin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

BERTSO BARRIAK

1

**LURRA! LURRA!
EZ DA IÑOZ GUZURRA!**

Nire aurrean ikusgai ona izan zan **LURRA**
gure oinpean bere, sendo agiri jaku **LURRA**,
landarapean ongari agirian da **LURRA**,
guztion oinpean euskarri daukagu **LURRA**,
egaztiak be ibilteko oiñari dabe **LURRA**,
eta uraren azpian sendo eusten dago **LURRA**,
euria asten danean artzaille ona da **LURRA**,
basoa suaz kizkaltzen da, bero dago **LURRA**,
edur zuriz negu baltzean estaldu da **LURRA**,
ilterakoan gaiñean bear dogu guk **LURRA**.

2

**ARRAIÑA! ARRAIÑA!
LAGUN DOT NIK ARRAIÑA!**

Antxiña ixaspeko urtetan sortu zan **ARRAIÑA**,
orain be itxasoan ugari dago **ARRAIÑA**,
erreka meietan be uger dabil **ARRAIÑA**,
gure maian janari gozoa da **ARRAIÑA**,
txikia aundiarentzat janari da **ARRAIÑA**,
uretan beti pozik bizi da gure **ARRAIÑA**,
ugazdun balea ederra, baiña ez **ARRAIÑA**,
mairako janari egokia da **ARRAIÑA**,
arrantzaleentzat bizibide ona **ARRAIÑA**,
bizidunen artean izaki ona da **ARRAIÑA**.

3

**GIZAKIA! GIZAKIA!
BIZIDUNEN ARTEAN ANAI DOT GIZAKIA!**

Nire aita langille zintzoa da, **GIZAKIA**,
Nire ama, etxearen pozbide, **GIZAKIA**,
Bizitzan irakasle ona dot nik **GIZAKIA**,
sarritan arerio agertzen jat **GIZAKIA**,
alkartea egiteko bear dot **GIZAKIA**,
gaiso-aldian lagun jatort niri **GIZAKIA**,
illotza lurperatzeko lagun jat **GIZAKIA**,
Aitari otoitz egiteko kide **GIZAKIA**,
Lana egiteko be lagun dot nik **GIZAKIA**,
Izakien artean lagun dot nik **GIZAKIA**.

**TXORIA! TXORIA!
GURE LAGUN ALAIA!**

Zugatz-abar-artean alaiki dabil **TXORIA**
Biziki alai ta bizkorra dogu **TXORIA**,
Lumaz eta margoz ondo jantzia dogu **TXORIA**,
Abeslari alaia ta poza dogu **TXORIA**,
oianak alaitzeko onena da **TXORIA**,
ukulluetan abiak egiteko ona da **TXORIA**,
laiñopean neguan urrin doa **TXORIA**,
giza-maitasuna erakusteko **TXORIA**,
mundua alai eta pozik eukiteko **TXORIA**.

5

**LEOIA! LEOIA!
OIANETAKO ERREGE AUNDIA!**

Baso baltzean aundiki agiri da **LEOIA**,
beste piztien errege agertzen da **LEOIA**,
bildur barik txikiak jaten ona da **LEOIA**,
gorputz aundidun, melena-eder, apain **LEOIA**,
pizti txikiak jaten, bildurtzen dabil **LEOIA**,
ariñean basauntzak beste bizkor da **LEOIA**,
eizakiak iru zati, irurak neuri, nazelako **LEOIA**,
pizti guztien artean errege dager **LEOIA**.

6

**ZURA! ZURA!
BETI NIRE LAGUNA!**

Jaio nintzan zeazkara, bertan egoan **ZURA**,
Jesarri nintzan jateko maian, azpian **ZURA**,
lo egiteko joan nintzan ogera, **ZURA**,
nire illotza kutxaratu eben, inguruz **ZURA**,
sua eginda janariak gertatzeko **ZURA**,
arnasa artzeko airea sortzeko basoan **ZURA**,
baso ederretan piztiak janaritzen **ZURA**,
uraren aurka lurra sendotzeko dago **ZURA**,
piztien janariak basoan sortzeko **ZURA**,
laguna ta lagun aundia dot beti nik **ZURA**.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

5.- SIBERIA SORTALDE URRUTIA

Siberia izena sarritan entzun dogu eta ez beti toki atse-gingarri lez. Ara bialtzen ebezan Errusia'ko komunistak, zigortuak izaten ziran erritarrak.

Ikusi dagigun gaur zelakoa dan Siberia eta zelakoak diran bertan bizi diran gizon eta andrak.

Izenak berak izoztuta dagon lurraldea esan nai dau eta izen orrek lurralde otza dala gogoratzen dausku.

Bidez lurraldea igaroten ba'dogu, an-or-emen kartze-latuen tokiak aurkituko doguz. Olakoetan sartzen ebezan lapur eta erailtzailleak, katez lotuta. Baiña beste asko politika-arazoakaitik espetxeratuak ziran. Pedro Aundia'ren aldietatik asita, politiku baituak katigu-lanetara bialduak izan dira. Gero komunisten jokabide okerragaz batera ez etozanak nekazariak izaten ziran ara katigu eroanak eta an alkartzen ziran Polonia'tik, Estonia'tik, Lituania'tik, Ukraina'tik eta Rumania'tik eroanakaz. Iñoz eldu dira an amabi milloi izatera bizibide txar aretan.

Ango kondaira batzuk entzunak doguz: Zaldi-talde korrikalarienak, otso-talde gosekillak... Orreikaz joko asko egiten ziran Tzaren aldietan.

Katamotzak (tigreak) izaten dira bildurgarrienak, batez be zarrak diranean. Oneik gizonari gogor erasoten dau-tsoe eta kosako-taldea bialdu bear izan zan trenbideak egiten ibilli ziranean.

Mundu guztiko edurtzak zazpi zati egin ezker, zati bat izango litzake Siberia'rena.

Asia'ren zatirik aundiena da Siberia eta Errusiaren menpean dago. Egoaldetik mongoliarrak daukoz, ipar-aldetik be antzera. Orko ibai guztiak egoaldera doaz.

Alde au ia urte guztian dago edurpean.

Siberia'ko lenengo biztanleak eiztariak, arrantza-leak, artzaiñak eta nekazariak ziran.

Iparraldean bizi diran talde batzuk ibiltariak dira eta ez dabe ezagutu gizabidearik.

"Tundra" dira ango baso zabalak, zugatzbako zabal-diak eta basauntzak bizi dira bertan. Oneik emoten dau-tsee biztanleai aragia, esnea ta narrua eta onak dira garraio-lanerako.

Narruzko edo landarakaz egindako txaboletan bizi dira Siberia'tarrak.

Iakutoen lurraldea Europa'ko Errusia osoaren beste-koa da eta oloa, garia, patatak, eta azak artzen dabez, baiña euren irabazirik aundiena mamuten agiñen marfilla da. Abere onein gorputz illak izoztu eta luzaroko jatekoa izaten dira.

Kirgistarrek Ienisei ibaiaren inguruko ibarretatik eto-riak dira eta zaldiak eta ganbeluak dabez zamari.

Buriastarrak artzaiñak eta abere-zaiñak dira. Txarto artzen dabe kanpotik ara doan jentea.


Kolon'ek Amerika aurkitu eban sasoi aretan Errusia osoko tzar zanak lenengo aldiz jakin eban Siberia'n "urre biguna" egoala, narruak ziran urre bigun ori, sartal-deko azoketan ondo saltzen ziralako. Orrelan kosako gudazaleak menperatu eben Siberia eta ango jenteari zer-gak ezarri, gazteluak bota, eta bideak itzi eutsezan. Urte eta odol asko kosta zan sarbidea zabaltzea.

Bladistok da Siberia'ren beste aldi dagoan uri aundia, Transiberiano eritxon trenaren el-muga. Transiberia-no tren au 1891n. urtean egin zan, Errusia'ko mugan asita, eta ez zan amaitu 1917n. urtera arte. Bide orretatik etorten ziran Asia'ko frutuak ango errietara. Millaka

gizonen bizibidea obetu eban tren onek, baiña Erru-sia'ko otsoak eta Txina'ko eren-sugeak izan ziran kalte-egille.


Lurralde orretako biz-tanleak Errusia'ren men-pean geratu ziran zerga bikoitza ordaintzen: Sibe-riar asko jagi ziran aurka, baiña laster zapaldu ebe-zan. Kañoiak (kea ta erio-tza botaten eben tubo aundiak) ziran nagusi. Azke-nean kosakoak nagusi eta Siberia menpean.

OLAZAR'tar Martin'ek



Siberiar kata-motza

4.- POLEN EDO LORE-AUTS-ZALEAK XOMORROAK



ERLE MANDOA

ERREGIÑA

ERLE-LANGILLEA

ERLE-MOTAK

Lorak arrak eta emeak izaten dira eta igalea lortzeko mota bi oneik nastatu egin bear dira. Aizeak egin leike ori baiña zomorroak be orretan laguntzaille onak dira.

Tximeleta edo mintxia, erlea eta kurebioa dira orretan geien ibiltzen diranak eta oneik gabetik goizera galduko ba'lira, urrengo urtean ez litzake aurreko urteko beste igale izango.

Darwin'en ustez, loreak usaintsu ta koloretsu biurtu ziran, zomorroak eurenganatzeko. Eta eurak jakin barik, beste asmo bat daukela (eurak ezitia egitea nai dabe) egiten dabe lan eder ori.

Mintxia edo tximeleta zomorro ederra da eta lan ori egiten gogotsua. Munduan lareun milla mintxi-mota dagoz, guztiak daukez ego aundi eta dotoreak. Edertasun ori egoen gaiñean daukezan ezkatat emoten dautsee. Oneik teillak teillatuan lez dagoz.

Lorea xurgatzeko euren zur luzea luzeagotu ta biurtu egiten dabe.

Eurak nai dabena, umeentzat ezitia da.

Batzuk egunezkoak dira, gauezkoak besteak. Txikienak zm. erdi dauko luzeran, baiña Brasil'en bizi da aundiena. Onek 15 zm.'ko egoak daukaz. Bizkorrenak orduko 50 km. egin leikez.

ERLEAK

Eztendunak dira eta ama-sena dauke. Lore-autsez eta eztiz janaritzen dabez euren buruak eta euren umeak.

Erleen lana erregiñearen bizia zaintzeko da.

Erlauntz batek 80 000 erle euki leikez eta 1 000'tik 3000'ra arrautza egiten dauz erregiñeak egunean.

Erle larregi diranean, erleak gela aundiago batera eroaten dabez erlekume batzuk eta janari berezia emonda, erlekume orreik erregiña biurtzen dira. Egun bero baten, zorabioak eraginda lez, jai egiten dabe eta ezitia jan.

Gero erregin zarra urteten da bereakaz (30 000) eta zugatz baten-edo geratzen da. Or artu leike gizonak erlontzia beretzat, ontzira sartu-azota. Kea eta zaratak eta olakoak bear izaten dira.

Erleak milla lora bear ditu bere lore-ontzia beteteko. Etxera ekarri, ontzia besteai itzi eta berriro joaten da billa.

Erregiñea erle aundiagoa da, zm. biko luzerea dauka. Gelarik gela, minutu-erdiko arrautza bat egiten dau.

Atean zaintzailleak ipinten dabez eta erle arrotzik etorten ba'da, il egiten dabe.

Aize-emoilleak be ba-daukez barruan eta barruko giroa 35° zaindu bear dabe.

Eunka dira urte-barruan jaioten diran erle guzurrezkoak edo zanganoak, baiña erle langilleak aspertu egiten dira eurai jaten emoten eta kanpora botaten dabez, gosez ilteko.

Erleak alkarrari barriak emoten dakie. Izkuntza ezku-tu bat ete dauke? Batek lorategi on bat aurkitzen dauanean, erlauntzaren aurrera etorten da eta barrura sartu barik, bizi dardaratzen da. Orduan erle-talde aundia batzen jako eta au entzuten dabela dirudi: "Ezti-leku eder bat aurkitu dot". Eta non dagon eta zenbat bide dagon be esaten dautse. Orduan bera barrura sartzen da eta eundak erleak zuzen doaz lorategi orretara.

Erleen antzekoak dira kurebioak. Talde txikiagoak, erregiñea be ba-dauke eta lurpean edo arkaitz zuloetan bizi dira.

Beste erle batzuk ibiltariak dira, non zer arrapauko eta besteen erlontzietara be sartzen dira eta an egiten dabez arrautzak, kukuaren antzera.

Ba-dagoz beste erle-mota batzuk be.

EUSKALERRIAN LAN EGITEKO ZAR-SARIA' REN SASOIA ONENA

Euskalerrriak beren bizitzaren azturazko jakintza ekintzan, ulermeneko arloan lortu eben demokrazia, bizitzarako-zeregiñetan gaur-lez danon eskubideak sartzen ziralako, ez zan edozer gauza, euren artean konpondu egin bear ziralako.

Europa'ren izotz-aldia urtzen asi zanetik, Kromañoñ-giza gaurko itxuragaz izan zan Europa'ra etorri zana, bizi-bideak errezatzeko eta bertan egon ziran Neardental'ak, ekarri eben askatasunezko-jakiturian bat eginda, jendartea aberastu ebana.

Lan gogorak izan bear ziran areik leenengo bizitzaren ikazlanak, ogi-bidea ez zalako bakarrik leen ulertu bear zana, artean eta batez gizarren eskubideak zaindu egin bear ziralako.

Gauza ederrak lortu ebezan eten-bako jakin-bide ortatik: "Azturazko jakin-bidetik OITURA; Gizartea'ren egokitasunezko egarri-bidetik EKANDU-DEMOKRATIKO AUNDI eta ZABAL BAT, gure LEGE-ZAARRETAN OIÑARRITUTA DAGOENA; eta gauza guzti orreine bitartez EUSKALIZKUNTZ ZORAGARRI-BAT, berbaz-berba ekanduzko-azturaren lan eder baten eraikita dagoena. Jakin bearrezko txar eta on-guzti orreine zer-izanak, Euskal gizartearen arazoitasunezko ARIMAREN ezagutzan ezartzeko.

Demokrazizko lan ederra benetan, gure arbasoak egin ebena.

Zorixarrez baiña! erromatarren-gandik asi-ta, Europa ta orduko Mundu onetan ezagutzen zan jaurgu guztia, arein askatasunezko sasi-norkerian ezarri bear izan eben, batzuk katolikotasunezko Erromatarren Kaizar-Sakratua aurrera eroan ebalako.

Mundu onen gizabide guztia borrokaren oituran bananduta, ia nor geratzen zan aiek asmatutako sasi-jainkotasunaren batzangotasunezko jabetzan. Gaur oraindiño daukaguzan late-riakaz amaitu ez dana.

Andik aurrera, Europa guztian, jaurgintzarako aukeratu ziran gizon/emakume areik, euren artean ezkondata, apurka apurka indar aundia artu eben eta sasi-aundiki orren askatasunezko guzurak erritarren artean zabaldu ebazanean, erlijioa eta jaurgintzaren zentzua naastu egin ebezalako, erri-gizarateak zekula ez dau aukera eta indarrik euki, jabetza maltzur orreik alboratu eta berezkitasunaren senezko zeaztasunean ezarri, indar, ospe ta diru guztiaren jabe egin ziralako.

Sasi-jainkotasunak, guzti ori lortzeko, beti!! JAINKOA'k Mundu oneri ipinita daukazan berezitasunezko legeak eta beren ulermeneko ekintza bidetik lortutako berezko-berezitasunak alboratu dauz.

Orregaitik, euren sasi-askatasunak lortzeko, leenengo alboratu egin bear dabena, arlo guztietan daukaguzan berezitasunezko NORTASUNAK dira eta ekintza orreitan, berezko erritarrak egiten dauana. Sasi-garaipenak lortzeko, euren ekintza-lez goraldu bear dabezalako

EUSKALERRIAN:

Kromañoñ'en etorkizunean, guk ulertu gendunetik demokrazia eta askatasunaren arloa JAINKOA'k Mundu oneri ipinitako lege-baldintzakaz osotzen zala. Zekula ez giñan erasoan joan beste erri baten aurka, gure lurraldeak eta izateko Nortasunak zaindu baiño ez genduzalako egin. Menperatzaileak

apurka-apurka gure lurak jaten juanda, gagozan lurraldeko neurrian geratu arte.

Euskalerrian, 1.832'ko urte ezker, laterri-menperatzaileak meatxuzko guda-keiñuakaz morroituta gagozenetik, gure Euskalarduran, oiturazko-jaurgintzaren antolamendurako, ezer edo gitxi al izan dogu egin eta jakintza arloan, egin dogun apurra, erri guztietan euki doguzan Apaiz ta lekaide abertzaleak ezker izan da.

Eta Sabino'ren irrirtzi'tik, Eurak (Apaiz ta Lekaide) izan dira, gure antolakuntzazko bideak debekatuta euki doguzelako, al izan dabean aukera-bidetik lortu dabeanak Euskal-sena gagozan abertzale-neurrian irauteko.

Gure gaurko Euskalerrian baiña, beste aukerazko-bide barrien bearra daukagu, dotozan Euskal-seme/alaba barriaren senak bizkortzeko eta erriaren izatasuna sendotzeko.

Goian argi geratu dan-lez, etsai asko daukaz gure Euskalerrian maite onek eta edesti arloan, oraindiarte guzurrez beterik idatzi dabean antzera, sekula ez dabe esango orretaz egirik. Euskal gizarateko arloan, sozialistak guzurtzen dabean antzera: "Gu, Europa ta Mundu'ko uritarrak (ciudadanos) gara", erdira-zale menperatzaileak asmatutako espanyolasunezko abertzaletasun barri ori eurak be on-artu eta atzean ostonduta erabiltzen dabela.

Orregaitik, bideak aukeratu bear doguz, mariñeltzan adibidez, jakiteko: Nortzuk izan ziran bizkaitar areik 1.246-1.248'an Bonifaz'tar amirala'rekin, itsas-bidetik eta bizkaitar itsas-ontzia'kaz Sebilla askatu ebenak Mauritarrengandik. Eta zeintzuk izan ziran baldintzak, Euskaldunak gudu-gertaera orreitan agertu daitezkan.

Nor, Ruiz de Abendaño'tar Martin Bizkaitarra. Eta XIV-XV'n gizaldietatik aurrera, asko izan ziranak, Europa guztian itsas-ontzi egillè trebeenak izan ziralako eta mariñeltzan bardin.

Eurak, len esan dotenagaitik, gurerik aipatu-be ez-dabe egingo. Bestela, egia zer dan euren erritarrak-be jakin ezker, batzangotasunaren askatasun orreitan jai daukie. Erdi-ugarte onetan, gureak izan diralako ospe ta merezimendu aundikoan.

Eta erakuskizun labur onen antzera, beste arlo guztietan bardin.

Euskalerrian, badagoz bere Ikastetxe-Nagusietatik asi-ta, jakifian jarri leikezan joandako zati orreik idatzitako irri-antzerki bidetik; kondaira'ren leiaketatik, internet'bidetik zaleak gogotu egin daitezkan eta abar asko. Ikastetxe-nagusitak beintzat aolku-ori emonda, errietako Udalak, kultur-erakundeak eta ikastolaren-arduradunak ekiñean ipini dagiazan.

Eurak egia zekula-be ez dabe esango eta gu egiagaz ondo apainduta aurka urten ezker, Euskal-gizartea argibide orrekaz zaletu baiño ez da egingo, bere edestiaren egiakaz arduratu eta onuran artuta, NORTASUNEAN eta ABERTZALETASUNEAN sendotu gaitzean.

EUSKALERRIA'k, BERE-ETXEA APAINTZEKO eta DAIKOZAN GELA GUZTIAK GARBI eta ARGITSU AGERTU DAITEZAN, BERE SEME/ALABEEN ARDURA ZINTZOAREN BEARREAN DAGO. Eta ZER OBEAGO.... GAUR "ZAR ZARI"an GAGOZENAKAZ BAIÑO? OR!! PAREGABEKO AUKERA BAT.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2.006'an ABENDUA'ren 22'an

PLIOZENO'KO GIZAKIA

Ikusi dagigun lenengo pliozeno deritxon aldi ori nozkoa dan.

Aurreko aldia, miozeno deritxoguna, orain bost milloi urte amaitu zan eta pliozeno aldia orain bost milloi urtetik 1'65 milloi urtera luzatzen da eta 1'62 milloi urtetik aurrera pleistozeno da, arik eta 730.000 urtera arte eta erdikoa da 730.000 urtetik 130.000 urtera eta goienekoa 130.000 urtetik 10.000 urtera.

Gaurko ekiñaldi onetan pliozeno'ko gizakia aztertuko dogu, dirala bost milloi urtetik asi eta 1'65 milloi urtera arte. Urrean geratuko jaku gaurko gizakia, uste danez milloi bi urtera eltzen ez dana.

Pliozenoko gizakia Afrika'n eta antxe bakarrik bizi zan. Orrek esan nai dausku gizakia Afrika'n sortua dala eta antxe igaro ebazala urte asko urten barik.

Aztertu daiguzan ba Afrika'n aurkitzen diran aldi aretako astarrenak. Asko eta askotarikoak dira. Egoaldetik asiko gara. Ez aztu aspaldiko ogei urteetan asko aurreratu dala billaketa lan au. Oraintsuko barriak doguz.

EGO-AFRIKAN

Gizaki bi agertu dira Ego-Afrika'n, bata makala eta sendoa bestea. Transbaal'en makala eta parantropus robustus bestea. Geroago beste bi be agertu dira. Geroago beste asko. Azterketan lan aundia izan da au!

Kare-atxak dagozen lekuan eta onein barruan izaten diran kobetan agertu dira astarrenak, asko eta askotarikoak estalaktiten artean. Batzuk apurtuta dagoz baiña igartzen jake iru milloi urte ingurukoak dirala.

Astarren guztiak daukez prognatismoa eta aurpegia arreratazea, albo-agiñak oso zabalak eta agin zorrotza txikia.

Telantropus homo'gandik urrean dago, baiña urrean dagoz beste batzuk be: Australopithekus afrikanus iru milloi urtekoa ta makala, parantropus robustus milloi bi urtekoa eta homo mota bi habilis eta erectus. Oneik geroago aztertuko doguz.

SORTALDEKO AFRIKAN

Emen ospetsuenak Olduvai'koak dira Au Tanzania'n dago. Emen bikote ezkondu batek egin eban lan aundia: Leakey bikotea zan.

Emengo astarrenak ez dauke egoaldekoen antzik, lurra bera be ebagia da, estratoduna eta bitartean sumendi edo bolanen ondorenak dagoz eta bertan fosilizatuak diran lez errezago da aztertzea eta ondoren ederra lortu da, bai gizakietan eta bai lanabesetan.

Baiña zerbait geiago esan bear dogu Tanzania'ko Olduvai inguruari buruz. Nairobi'tik 70 km'ra dago.

Estrato-bitarte bat dago 100 m.'ko sakonerea eta 40 km.'ko luzerea daukana eta azpia basaltozko aitzia da eta or aurkitu dira errapedun txiki eta aundiak asko, pimateak ugari, beikiak be bai eta zaldiak be ez gitxi, arraiñak eta lur eta ur bietakoak edo anfibiak be bai.

1935n. urtean aurkitu ziran gizakiak (erectus eta ergaster), baiña 1959n. urtean Leake senarrak gauza jakingarri bat aurkitu eban, gizaki baten buru-azurra eta urrengo egunetik asi ziran atxur-billaketa egiten eta jakintza edo kultura zaar bat aurkitu eban, izena "alduvainsis" ipiñi eutsoen. Aurkitu ebezan azurrak 1'75 milloi urtekoak dira, homo habilis be bai eta arrizko lanabesak ugari.

TURKANA ZINGIRA (Rodolfo): KOOBO-FORA

Auxe da gizakien azterrenik geien aurkitu diran lekua. 70 amarkadako urteetan 5.000 astarren gizakienak. Leakei gura-soen semea zan Richard'ek egin eban lan aundia, batez be Koobi Fora erdi-ugartean. Lanabes zarrak be ugari aurkitu ebazan.

Baiña azur bereizi bat Olduvai'koaren antzekoa 2'61 milloi urte baiña oraintsuagoikoa. Astarren oneik aztertzean, eritxi asko agertu ziran: Batzuren ustez guztiak dira mota bat, beste batzuren ustez iru gizaki dagoz or, beste batzuren ustez mota bi, makalak eta sendoak, geienak erectus.

HADAR (ETIOPIA)'KO ASTARRENAK

Milloi bi urte baiña lenago be ba-ziran gizakien aurretikoak txinpanze ta gorilakaz batera. Etiopia'n agertu dira aldi aretako astarren asko.

60 km. dagoz Etiopia'n Abdis. Abeba uri nagusitik urrean. Aztarren asko dira. Piztien artean elefanteak, txarriak, tximiñoiak, guztiz 73 pizti-mota.

Gizakienak iru talde agertu dira 3'3 milloi urtekoa izanda, oin-bikoa dan mota bat be bai, baiña bat dago ikusgarriena, gorputz-azurtegi osoa daukalako eta oneri LUCY ipiñi eutsoen izena, aldi aretan Beatles abeslariak abesti baten sari aitatzen eben Lucy izena.

Lucy 1954-11-30'n egunean aurkitu eben.

Beste astarren asko agertzen ziran euriteetan urak ekarrita eta gero batu egin bear izaten ebezan. Or agertu dira gizakien aztarrenik zarrenak. Lucy 3'5 milloi urtekoa da Eta beste 13 gizaki dagoz batera zati orreitan.

Lucy zelako emakumea zan? Txikia (1'20 m) esku ta oiñetako azurrak ez dira gaurkoak lakoak, burua oso txikia dauka, kadera-azurrak gerokoen antzekoak, agiñak V erakoak, badauka txinpanze'ren antza baiña oin-bikoa da. Lucy'ren semea esaten jako urrengo bateri, gizona da, buru aundia ta zabalaa...

HADAR'REN "HOMO HABILIS"

Ain garrantzitsua dala esan dogun Olduvai'ko aztarrenen artean ba-dago "habilis" dan gizaki bat, milloi bi urte baiña gazteagoa. Orduan klima aldatu zan eta Homo mota agertu, arrizar aroko lanabesak be bai.

Etiopia'ren egoaldean dago omo deritxon lekua, Turkana zingiraren iparraldean or aurkitu ziran 1980n. urtean 4 tone aztarren eta or be ba-dagoz Homo habilis, homo erectus eta boisei giza-motak.

Toki orretatik urrean dago Middle eta gizaki asko agertu dira Maka'n aferensis 3'5 milloi urtekoa, Bodo, Belohdelie 3'9 milloi urtekoa, aramis, 4 milloi urteko, eta bouri.

Baiña garrantzi berezia dau Orrorin gizakiak onek 6 milloi urte daukaz eta zugazetara igoten dau oin-bikoa izan arren. Geroagoko gizakien antzekoa da.

Urteak: 7 milloi jurte daukaz txinpazeak.

6 milloi urte Orrorin'ek

3'5 milloi urte makalak eta sendoak

2'5 milloi urte, klima aldatuta Homo habilis'ek eta onen lanabesak.

OLAZAR'tar Martin'ek

1.- LIBURUA AURKEZTEN

1936'KO GUDA EUSKADI'N (BERAZATEGI-DOMINGEZ)

Liburu barri bat irakurri dot eta Euskalerrria'rentzat ain kaltegarri izan zan gudeari buruz azkenengo albiste eza-gutuak emotera noa amairu idaz-lan oneitan.

- 1.- Liburuaren aurkezpena.
- 2.- Guda-aurrea.
- 3.- Nafarroa'n iraultzaren ardatza.
- 4.- Iraulketa eta gudea bera.
- 5.- Euzkadi'ko giroa.
- 6.- Lenengo ekitaldiak.
- 7.- Gudariak.
- 8.- Lenengo jaurlaritzza.
- 9.- Legutiano'ko gudaldia.
- 10.- Gudearen ondorenak (umeengan, emakumeengan, zapalkuntza).
- 11.- Abadeen jokabidea.
- 12.- Geroko aisiltasuna. Eta
- 13.- Gudarostea zelan eratua zan.

Jaso zana aiztu ez dakigun eta gauzak obeto ezagutu daiguzan ondo etorriko jaku Iñaki Barazategi'k eta Xabier Domingez'ek idatzi dauskuen liburu au.

Ori egiten ez ba'dogu ara zer jazoko dan, edo jazoten asita dagoan: Gizaldi bi igaro ezkeru gure ikastegietan au entzun eta onartu da: Franco gizaki on bat izan zan eta bere bitizan zapalketa-lana egin bear izan eban, bai Afrika'n eta bai España'n be eleizak erreten eta gizaki onak

ilten asi ziran ezkertarrak azpiratzeko. Albarez'en entziklopedia ikasi ebenakaz batera jarraituko dabe, orduan jaso zan negarrak piper bat be mindu barik.

Orregaitik aiztutze ori jaso ez daiten bakunean artu bear dogu guztiok.

Aundikeria dirudi baiña liburu au bear-bearrekoa da edestirako eta daotzen urte-urrenak, 75ª, 80ª, 90ª, ez daitazan izan gudatik sortu zan gau illuna argitzeko eta Franco'ren irudiak plazetan barriro ipinteko. Oker idatzitako edestien ondorena da ori! Guzura ta egia salneurri bardiñean saltzen dabezan orre in ondorena!

Orreik esango dabe guda asi ebenak 1934n. urteko ezkertiarak izan zirala, baiña or dabitz zuzetasun-zaleak bide-ertzetan eta landetan lurperatuta dagozen ezkertiarren azurrak argitara ateraten.

Zelan jokatu guzur aundi orren aurka?

Aiztuketaren bide ori galazoten dauan botikeagaz batera, egia agertuz. Ori egin nai dabe liburu onen idazleak... Orretarako agiriak eta testigantzat ekarri dabez Euzkadi Irrati'ra etorri diranetatik artuta. Lan aundia izan zan, edestiaren millaka zati orreik alkartu bear izan ziralako, baiña edesti ori ez dago gure irakurleengandi urrin eta eurak osotu al izango dabez zatitxuen batzuk peitzen ba'dira.

OLAZAR'tar Martin'ek

IPUIN-SARIKETA

1.º SARIA: JOSE MARIA MURUA

2n. SARIA: PALMI MERINO

3n. SARIA: ASIER LEGARRETA

4n. SARIA: ZIORTZA ARRIEN

5n. SARIA: ALBERTO NARBAIZA

2.- GUDA-AURREA



Gernika-1935: ABERRI-EGUNA. (Mitina-egiten ez eben itzi Poliziak)

1936'KO GUDA EUSKADI'N (BERAZATEGI-DOMINGUEZ)

1936n. urteko gudeak garrantzi handia euki eban Euskadi'n, baiña asi baiño lenago ezaugarri batzuk agiri ziran.

Mola egoan erkalak izendatuta Nafarroa'n, baiña beragaz batera agiri ziran ormetan maillua ta igitaia naizta sarritan margoz estalduak izan, bere aurrean asi ziran emakumeai ulea ebagiten, berak be entzuten eban irain aundi lez esaten zala "zu mezara joaten zara" edo "ez egizu urten zeure etxetik".

Zelaietan tiroketan ikasteko saioak ikusten ziran, baita izkilludun jentez beterik joiazan kamioiak be. Gaiñera non-nai agiri ziran asturiastarrak dinamitea eskuetan ebela, eta erreketek ezelako lotsa barik agiri ziran fusillak eta eskapularioak erakusten ebezala.

Laster asi ziran Nafarroa'ko errepideen alboak askotariko eraillak lurperatzeko zuloak egin eta estaltzen.

Bilbao'n ebillan Indalezio Prieto eta onek naikoa argi esan eban El Liberal izpar-ingian Mola Nafa-

rroa'n matxinada gertatzen ebillala eta Gaztelu-Plazan albisteak batzen. Orretarako lagun bategaz zinera joaten zan eta zinea asi ta laster bere laguna an itzi eta lekaide-etxe batera joaten zala matxinoen batzarrera. Zinea amaitzerakoak, lagunak esaten eutson aria nondik nora joan zan eta berak edonon azaltzen eban gai ori, an egon zala sinistu egien.

Casares Quiroga'k Prieto'ri esan eutson Mola zala erkal edo errepublikearen lagunik onena.

Giroa ez zan ohea Bilbao'n eta Donostia'n. Erkalak ez eban lortzen kaleetan eta eleizetan ezelako itzaltasunik. Gasteiz'en be antzera.

Erkalaren ezintasuna eta ezkertiarren gorrotoa ikusita, edozeinek uste izan eikean gauzea txarto amaituko zala. Ez zan urtenbiderik iñondik be agiri.

OLAZAR'tar Martin'ek

EDUN ADITZ LAGUNTZAILLEAREN ORAINALDIA

ZER aldizkariaren 318n zenbakian argitaratu genduan lantxoan, *izan* benetako laguntzaillearen sorrerako adizki jatorrak oneek zirala probatzen saiatu giñan : *na-iza, a-iza, da-iza, ga-itza, za-itza, d-itza* naiz eta gaur egun onela erabilten doguzan : *naiz, aiz, da, gara, zara, dira*.

**Edun* aditz iragankorren laguntzaillearen orainaldiko adizki batzuk oneek dira gaur : *nau, au, dau, gaitu, zaitu, ditu*. Bizkaieran baita be erabilten dira onako plural oneek : *gauz/gaituz, zauz/zaituz, dauz/dituz*. Guk usten dogu euren jatorrizko sorrera *izan* laguntzaillearen bitartez lortu zala beste aditz guztiak legez. Orrela, *izan*-en *naiza* + **edun*-en *-u-* erroa + (t)e irugarren pertsonako "sujeto agente" plurala > *naiza-u-(t)e* > *naizaue* > *nabe* bizkaieraz eta *naute* gipuzkeraz. Bardin *aiza* + *u* + *gu* > *augu* ; *daiza* + *u* + *zu* > *dauzu* > Biz. *dozu* ta Gip. *dezu* ; *gaitza* + *u* + (t)e > Biz. *gaitue(z)*, ta beste euskalkitan *gaitu(z)te* ; *zaitza* + *u* + *gu* > *zaitugu(z)* eta amaitezko garrantzitsuenan dan auxe : *d-itza* + *u* + *zu* > *d-itu(z)*, asierako *d-* ori *-a-* barik bere kide guztiak daroenarren sarritan *esan* dogun legez.

Gure eritziz, bizkaierako pluraleko adizki zarrenak *gaitu, zaitu, d-itu* ta antzekoak dira. Egia esan, joko bardiña da, adibidez, *naiz/gaitza, nau/gaitu, nazan/gaitzan, da/d-ira, dau/d-itu, dadin/d-itezen, dezan/d-itzan, izan* aditzaren aztarnak agerian dirala. Bestalde, *gauz, zauz* eta *dauz* aldaketak beste adizki barriago oneen antza dauke : *nago/gagoz, nauka/gaukaz, dator/datoz, dauka/daukaz, izan*-en arrastoa galdu ezkeror sortu zirana. Gañera, beti esaten dogun lez, euskalki guztiak asko be obeto gorde dituez itanoko adizkiak neutroak edo "cortés" delakoak baiño. Erri zeiak obeto eutsi deutzaz bere jatorrizko forma zarrei "corteseoak" baiño. Ona adibide batzuk Biz. itanoko adizki batzutan : *ga-it-uk, -it- izan*-etik sortutako plural marka orregaz ; *j-it-tubadaz, j-it-uzak, j-it-ubaguz, j-it-ubezak, gaja-it-uzak, gaja-it-ubezak, j-it-ubazan, j-it-ubezan, n-it-ubazan*, etab. Naparroako Burundan eta beste lurralde batzutan *j-it-uk, j-it-uat* etab. erabilten dira eta Sakanan *z-itt-uk, z-itt-ubet, z-* eta *j-*aren aldaketa agertuz. Bizkaierako **edin*-en pluralak *ga-it-ezen, za-it-ezen*, eta *d-itezen* izanik, onartzekoa da **edun*-enak *ga-it-u, za-it-u, d-it-u* izatea, kasu bietan *izan*-en bidez sortu ziralak.

Edozelan be, jakitun batek idatzi eustan euskal fonetikan ez dagoela onartua, adibidez, *ditza+u* > *ditu* legezko aldaketak, beste arrazoirik bage. Era berean, guk diñogu ez dagoela ukatuta be. Argudio ustela bota eustan. Ikusi daigun *-tza-* zelan *-ta-* (baita *-da-* be) billakatzen dan. Inchauspe jaunak ipiñita Lapurdirako, *-tza-*ren orde *-ta-* gaz adizki oneek daukaguz : *zin-ta-zkidan, nin-ta-kion, gin-ta-zkion, zin-ta-zkion, zi-ta-zkion*, etab. Zuberoako,

idasle berberak : *hi-ta-kit, di-ta-kidat, zi-ta-kit, di-ta-kizat, gi-ta-kit, di-ta-kitzak, ni-ta-kio, gi-ta-kio*, etab. etab. Zuberoako, Bonapartek jarriak : *nin-ta-kion, zi-ta-kion, gin-ta-kion, zin-ta-kion*, etab. etab.

Bestalde, or dagoz *onen-tza-ko, onen-ta-ko, onen-dako* itzak. Baita be, *itz* = *berba* ta *it-andu* = *galdetu, iz* = *ura* ta *it-urri* etab. Batzuentzako *kaka-tza-n* da, besteentzako *kaka-ta-n*. Au ikusirik, ¿ukatu leike *-tz-* soiñua *-t-* billakatzen dala?

Ditz-*a* + *u* ¿zelan egin leike dit-*u*? Au da, ¿*a* + *u* > *u*? Lenengoko adibidea Biz. *da-u* zarra beste euskalki batzutanako *d-u* barriagoaz alderatuz. *Da-u* ori *izan*-en *da* + *u* **edun*-en errotik sortu da.

Oindik geiago. Biz. itanoko *gintz-u-azan*, Azkuek ziñoenez **gintz-au-azan*-etik datorrena. Bardin *nintz-u-an*. Baita be bizkaieraz, Zigoitian, *niñ-au-dien, giñ-au-zuzan, niñ-au-kek*, etab. beste euskalkitan *nind-u-ten, gint-u-zun, nind-u-kek* etab. diranak. Izenordaiñetan : *au-nen* > *hunen, au-nek* > *nek, au-ni* > *hu-ni*. Gip. *au-natu*, Lab *un-hatu* 'fatigar'. Lab. *au-rthiki*, Sul. *u-rthiki* 'jeter'. Gip. Lab. *ir-au-li*, Biz. *ir-u-li. Bas-au-rde* > *bas-u-rde*. Agud jaunak : *ast-au-rraza* > *ast-u-rraza, marr-au-za* > *marr-u-za* 'espa-da', *giz-au-rde* > *iz-u-rde, it-au-ndu* > *it-u-ndu*.

Bar-au-r > *bar-u-r, begir-au-ne* > *begir-u-ne. Mar-au-ri* 1551 urtean eta gaur *Mar-u-ri. Zin-au-rrri* > *zin-u-rrri*. Argi dago *ditza-u* > *dit-u* billakatzea erraza dala.

Beste adibide batzuk. Len aitatu dogun Zigoitiako izkeran, iraganaldian : *niñ-au-dien* 'ellos a mí', *iñ-au-dien* 'ellos a tí', *giñ-au-ezan* 'tu a nosotros', *giñ-au-bezan* 'él a nosotros', *giñ-au-zuzan* 'vosotros a nosotros', *giñ-au-diezan* 'ellos a nosotros', *ziñ-au-diezan* 'ellos a vosotros' etab. etab. eta oneetatik ataraten diran itz eratorriak. Zigoitiako adizki oneek, beste euskalkitan eta ordena berean, gutxi gora-bera, onela dira : *nind-u-(t)en, ind-u-(t)en, gind-u-an, gind-u-en, gind-u-zun, gind-u-ten, zind-u-ten*. Zorionekoak dira Zigoitiako adizki oneek. Ez dago ukatzerik *giña...*, *ziña...*, *niña...* *izan*-en *giña-n, ziña-n, nintza-n*, dirala. Begirada baten, adizki oneek, alkar probatzen dabe. *Nintzan* eta *niñan, giñan* eta *gintzan, ziñan* eta *zintzan*, danak *izan*-etik datozenak. Forma oneei **edun*-en *-u-* erroa geiturik, *giñan+u...* edo *gintzan+u...*, *zintzan+u...* edo *ziñan+u...*, *niñan+u...* edo *nintzan+u...* Era berean, orduan, oraiñaldian bardin, *gaitza* + *u...* > *gaitu, zaitza* + *u...* > *zaitu* eta *ditza* + *u...* > *ditu*. Au da, *izan* aditza jokatzuz baiña **edun*-en *-u-* erroa geiturik bakarrik bape jokatu barik.

Gauza asko gelditzen dira esan barik baiña urrengo baten *izan* bearko dau.

Iker Joseba Laka Guenaga

9.- ATALANTA ETA URREZKO SAGARRAK (Beozia)

Beozia'n korrikalari anka-ariña zan neska bat bizi zan, erbi, basauntz eta beste pizti anka-arin guztiai irabazten eutse-na. Neskatil ederra ta txarmanta zan. Ango erregeak auxe iragarri eban: Atalanta'ri korrikan irabazten dautsonari, neskatil au emongo dautsat emaztetzat, baiña korrika-leian neskeak irabazten ba'dau, senargai orrek eriotzea lortuko dau.

Gazte asko urreratu ziran leiaketarako baiña guztiak edo korrikan ito ziran edo ostein bizia kendu eutsen.

Egun baten Neptuno'ren jatorrikoa zan Ipomenes gazte liraiña jarri zan Atalanta'ren parean korrika egiteko, baiña biziaren arriskua egoalako, aurretiaz Benus jainkosearen laguntza eskatu eban.

Benus'k entzun eban otoitz ori eta zugatz batek emoten ebazan urrezko sagarretatik iru ale emon eutsozan eta irakatsi eutson zelan jokatu.

Millaka lagun batu ziran leiaketa ikusteko eta an aurrean egozan Atalanata eta Ipomenes, biak urteteko ezaugarriaren zain.

Asi zan ariñeketea, biak bardin-antzean joiazan, eta bide-erdi inguruan ikusi eban Ipomenes'ek Atalanta aurreratu egiten jakola eta orduan Benus'ek emonda urrezko sagar bat jaurti eutson bere aurrera Atalanta'ri eta au sagar ori artzearen atzeratu egin zan eta mutillak aurea artu. Baiña barriro be Atalanta, bizkorragoa zan lez, aurreratu egin zan. Orduan bigarren sagarra jaurti eban Ipomenes'ek.

Azkenerantza joiazan eta Atalanta aurretik. Irugarren sagarra bota eban Ipomenes'ek eta aurea artu eban. Alperrik alegindu zan Atalanta barriro aurea artzen. Ez egoan astirik. Mutilla sartu zan, doi-doi aurretik.

Ango gizonezkoen poza eta txaloak!

Atalanta'k besarkada bat emon eutson Ipomenes'eri mutil au bera baiño zurragoa izan zalako, pozik. Senartzak artu eban Atalanta'k Ipomenes!

OLAZAR'tar Martin'ek

10.- PIMALION ETA GALAETA (Txipre)

Txipre'ko erregea zan Pimalion, gaztetatik egurrak eta arriak lantzen zalea eta bere pozik aundi-ena zan gizonen eta emakumeen irudiak egitea.

Errege egin ebanean oraindiño ezkongai zan eta erriko ardurak aske izten eutsoen asti guztia, irudiak egiteko izaten eban. Bere irudiai arnasea artzea bakarrik peitzen jakela esaten eben ikusleak.

Bein baten artu eban artzuri-zati aundi bat neska baten irudia egiteko eta ondo joian neska ori taiutzen eta amaitzen egoanean, iruditu jakon artzurizko neska orrek barretxua egiten eutsola.

Zoratzen egoan amaitu ebanean, iruadiari begira eta soifneko egokiak jantzi eutsozan arrizkoa izan arren, urrezko kateak be ipiñi eutsozan eskutorrekoak be bai eta atzamarretan erastun ederrak. Eta Galatea ezarri eutson izena.


Orduak igaroten ebazan irudiaren aurrean. Eta azkenean konturatu zan baragaz maitemienduta egoala.

Andik egun batzutara Txipre'n Benus'en jaiak egin ebazan eta Pimaleon erregea izan zan jaien zuzendari.

Benus'eri opari asko egin-ondoren, eskari au egin eutson:
- Ene jainkosa eskuzabala! Galatea'ri emon egiozuz zure doiak!

Jaiak amaitu ziranean, etorri zan Pimalion bere etxera eta zuzenean joan zan Galatea egoan gelara. Begira-begira egoala, bat-batean, Galatea'ri matraillak gorritu jakozan,

Eleiza klasikua Grezian.



betazalari eragin egiten eutsen, arnasea artzen eban... Zoratu bearrean egoan pozez Pimalion erregea!

Galatea, barretxua galdu barik, jatsi zan bere lekutik eta besoak luzatuz beragana urreratu zan. Pimalion'ek emaztetzat artu eban Galatea!

Pozik joan ziran biak Benus'en eleizara eta Benus be etorri zan euren eztegora.

OLAZAR'tar Martin'ek

ITZ OROKORRATIK ITZ BEREXIENETAKORA

IZTEGUI OROKORRATIK ITZ BEREXITASUNERA MARIA DOLORESEN IDAZKI BATEN EREDUA

Orain dala aste batzuek Maria Dolores Errandoneak, Zigardibereko Etxekoandreak eskuz egindako idazki bat eman zigun. Artu genun bezala osorik azaltzen dugu idazki onetan.

URIA	LURRA
URI ERASUA	LUR ZELAIA
URI ZORTAK	MENDOINTZA
UR BIDIA	LURRAN BIDIA
UGARRIA	LUR ESKANDA
INTZUKIA	LURRAN ILLUA
INTZA	LUR MULTZUA
UR ZORROTA	LUR IBILLIA
UR PUTZUA	LEZOIA
LOIA	LUR GOGORRA
UR ASORTA	LUR AZAMURRA
UR ISTILLA	LUR KALLATUA
URAN BURRUMBA	LUR BUSTINTSUA
URAN ASIOTZA	LANDA
UBAUNDITUA	SORUA
AMPATUA	BELATEGUIA
LAÑUA	LARRIA
ASKA	LARRASKA
IDOIKO ZELAIA	

ERRENAKAN DAUZKAGU NAPARROAKO EUSKARAZ AZPIMARRAZTUAK ITZ OROKORRAK -URIA- ta -LURRA-
ITZ BEREXIAK DATOZTE ERRENKA OIEN ONDOTIK MAKO TARTEAN SARTZEN DITUGUNAK. MARIA DOLORES ERRANDONEAK GURI ESKURATUAK. URIA

URI ERASUA (URI GOGORRA)
URI LANGARRA (URI INTZA)
URI ZORTAK (URI TANTUAK)
URI BIDIA (URAREN ASKA)
UGARRI (MALDA BERA DATORREN URA)
INTZUKIA (UR GELDITUA)
INTZA (GOIZEKO URA)
UR (ETE GABE DATORREN URA)
UR PUTZUA (UR GELDITUA)
LOIA (LURRA UREZ BETEA)
UR ASORTA (URAREN XORTA)
UR ISTILLA (UR BUZTIA)
URAN BURRUMBA (URA IXTILLA)
URAN ASIOTZA (SOÑU AUNDIAKIN)

UBAUNDITUA (ASKO BUSTITZEN DUNA)
AMPATUA (AUNDITUA)
LAÑUA (LANBROA)
ASKA (EDATEN EMATEKO ONTZIA)
IDOIKO ZELAIA (ZELAI BUSTIA)
ORAIN BIGARREN ERRENKAREN AZTERKETA
EGITEN DEGU, MARIA DOLORES ERRANDONEAREN LAGUNTZAREKIN.

LURRA

LURZELAIA (LUR BERDINTSUA)
LUR MALDA (ALDAPATSUA)
MENDOINTZA (ALDAPATSUA)
LURRAN BIDIA (BIDIA)
LUR ESKANDA (JAUZIA)
LURRAN ILLUA (GOLDIAREN BIDEA)
LUR MULTZUA (ANITZ)
LUR IBILIA (LUR ALTXATUA)
LEZOIA (LURREZKO ORMA)
LUR GOGORRA (LUR GOGORRA)
LUR AZAMURRA (LUR XIA)
LUR KALLATUA (IBILTZEN EZ DANA)
LUR BUSTINTSUA (BUSTINTSUA DANA)
LANDA (BELARRA EGITEN DANA)
SORUA (BELARRA EGITEKOA)
BELATEGUIA (BELARRA GORDETZEN DANA)
LARRIA (MENDIKO BELARRA)
LARRASKA (SASIAK ARTUA)

AZKEN OARRA

Maria Dolores ERRANDONEAREN AZTERKETA ONEK agertzen digu baserrietan zeñen yakintza daukaten lurgintzagaietan gizarte batetik bestera eratua.

Dagona. Buru argiak egiten dute erri baten yakintza eta izkuntzaren aberastasuna.

LATXAGA



IBAN ILITX'EN ERIOTZA

Edozein elerti-eginkari obeto ulertzearren, berau sortu duan egillearen dantasunera jo bearra dago. Era ortara, asiera batean garrantzige izatearen irudia eman dezakean zenbait txetasunek, erabakigarri bihurtu ditezke, egitsaria txuxen iragitu dedin.

Leon Tolstoi lur-jabe aberatsen sendi baten baitan jayo zan. Gazte zala gelditu zan umezurtz, ta bere aurtzaroa Iasnaia, bere jayoterriko etxaguntza batean igaro zan, senitarteko jakitun batzuen zaipean. Geroago, sendi-bizitzaren lasaitasuna bere emaztearen gaixotasun larriak, bi sengiren eriotzak ta bere gogo-aztearen askabidea billatzeak ausi zuten.

Bere notin-eldutasuna sakontzeko egiñaal batean, ito-larri ezaldi batzuek jasaten ditu, zilleiziti- ta uzkurtz- bizitza osoagoa zeskayon atezuak berekitzen zituanak. Ertiarekin berez ase etzegolarik, bere ganoa arlo zilleizitiki ta uzkurzkietara irauli zuan.

Tolstoi'k biziaren eta uzkurtz- jasofien gogai berria salo egin zuan, "Tolstoi-irakaskintza" deritzana.: zifneskitzarik gabeko oniziti-uzkurtz antzo (como una religión ética sin normas) garatu zan kistartasuna, indarkeria zapuztean eta maitasunean, gaudi-lagi bezela, oñarritua.

Auxe da Tolstoi inguraten duan unkipen- eta gizarte- aldekiaren zirri-borro laburra, Iban Ilitx'en edestia ernaltzen dualarik. Idaztiak, bere orotasunean, eztitu bakarrik erabiltzen eriotza, Iban Ilitx'en gogo- ta soiñ- ito-larria, bizkarean jardunaldi gellen eta bizpide-iziti bikaña duan oñarri-epalle dalarik.

Eriogarriko arpegi-orde dantza ontan bizitzari zentzuna ematen dioten osagai ta norki danak dagertza, baita beroni zentzuna kentzen diotenak ere.

Tolstoi'k gure bizitzan egunerokotasunean estutzen gaituzten arazoai iges egitea, abek askatzeko okerreneko era dala gogorazten digu. Gerta oi da, norbait ortaz jabetu, oartzterako, bein-betiko berandu dala. Bizia azkar igarotzen da, gure atzamar tartean digaroan aize igeskorra bai-litzan. Ta bakarrik zimurtutako ikur bakar batzuek uzten ditu. Eldukizun, umotzeko dagoan arnari baten agerraldiak izaki. Orduan Erio datorrelako, dana arrapatzen duana, zurrunbillo bulsu gixa.

Ta orduan, galduta, iraganera jotzen degu, bizi genduan edota era idekean bizi nai izan genduan aldira. Ta gure buruari galdegiten diogu, Iban Ilitx'ek dagianez, zergaitik ate ori aukeratu ote genduan eta beste ura iriki bage utzi.

Iriki ta itxi egiten diran ate oyen atzean, norbera aukeratze-ko askatasuna, eginkizun dagoan bizi batena, bere arnariak ematea itxaro duana.

Ta aundiak daude. Ta tikiak. Baña danak dituzte beren ezkurtutika ta beren atetik ibilli bearreko bidea. Iban Ilitx'ek, atzerabegirakorki ate erruk irikitzen dizkigu, arru bateruntz malkarrean narrastatzen dan bizi baten indak estalintzen dituztenak.

Ta au guzia igarotako bizi baten ikuspenak damaigun burargitiki abiatuta. Berekin bat egiteko amiltzen dan oe baten bakartasunatik. Bere egieren billa.

Baña norbaitek atek biotzik gabe irikitzen dituean, eta norbere egia billatzen ez duanean, baizik eta gai aldetik arrotutako ta edukirik gabeko dantasunak billatzen dituala, goiz ala berandu bere notin-gaudiaren ondamendizko austura gertatzen da.

Ta orduan gertaera guztiak arrapalaka dijoaz. Ezkontza baten lillurakatzeta ta desegitea. Adorekun- dantasunen igesa. Adizkideek baztartzeta. Eriogarriko oñazea. Amiltzen dijoan animaren larritasuna arindu ta baretzen duten egitazko adorenkunen arkikuntza.

Iban Ilitx'en eriotzak era berean egillearena antzezten du, arrezkeron illea urdinduxe zuan Leon Tolstoi, Iasnaia bere jayoterrian. Bere ondasunai uko egitea erabakita, deduetaz nekatuta, bakartasunean eta abelge bizitzeko irrikitzen, goi-goyeneko yarduki-ekintza batean, berak beti gaiztetsi zituan zuzengakeri ta gain-eskubideak zirala-ta. 1910'gn. urteko Azillaren 10'ean bere etxetik izkutuan irten zan. Bidaztutzean gaixotu zalarik, egun bakar batzuk beranduago Astapoyo geltokiñoan il zan.

**Egillea: Muxika'tar Erraimunda
Euzkerazlea: Etxaburua'tar Asier**

AFRIKA: 48.- TOGO TA DAHOMEI

Behin derritxon erreñu baltzetik datoz eta eder-zaleak dira eta erti estilizatuan gu baiño be aurrerago dagoz. Buztiñezko irudiak, aginte-makillak, sorginkerirako zurezko bandejak, edontziak, guztiak irudiz ondo apainduta daukez. Kalabaza utsak apaintzen dabez eta zapietan illentzat eskutitza idazten dabez jeroglifikoetan. Arria, buztina, marfilla, estaiñua eta olakoak lantzen trebeak dira. Batzuk K.a. 1000n. urtean egiñak dira.

Gitxi sartu dira langintzara. Petsalariak dira geiago. Ango lendakariak esker ona agertzen dautse agintari izan ziran Alemania ta Frantze'ri. Lan barriak egin bear dabez euren kakaoa, kafea ta algoa indartzeko.

Olazar'tar Martin'ek

AFRIKA: 49: TXAD ETA FORT LAMY

Erkal edo errepublika txikiak dira, 100.000 ta 94.000 biztanle, eta urteetan ez dabe saldu katiguak, marfilla eta abestruzen lumak baiño. Irabazbide barriak billatzen asi dira liñuagaz, kafeagaz eta kakauagaz. Toki batzutan diamanteak be ba-daukez, munduko onenak, eta abereak be bai.

Txad eiztarien baratza da eta arroza ta liñua ateraten dauz ugari. Eizarako ugari dagoz elefanteak, ipopotamoak, rinozeronteak, jirafak, bufaloak, leoi nabarrak, basakatuak eta txoriak.

OLAZAR'tar Martin'ek

ITSASOKO ARRANTZALEAK NAPARROAN

Orain dela gutti asi dira baserriko semeak arrantzara joaten Naparroan. Ara emen lenengo izenak billatu ditudanak.

**UGAINBORDA BERAN
SUSPELA AUZOAN
JUAN SAN SEBASTIAN
ZUGARRAMURDI
JESUS SAN SEBASTIAN
ZUGARRAMURDI
TOMAS SAN SEBASTIAN
ZUGARRAMURDI**

Lenengo iru abek osaba batek eraman zitun arrantzara itsasora. Aita Joxe Mari Xanburneko bordakoa zan eta arrebata Marina neskame Donostira joan zen eta an Ondarribitar batekin ezkondua, Joxe Sagartzazurekin ain zuzen.

Ugainbordan Joxe Mari San Sebastián Maria Zugarramurdirekin, bertako alabarekin ezkondu zan eta zortzi seme-alaba euki zituzten. Baserri txikia zan ainbeste aurrentzat.



Pixkanaka illoba gazteak itsasora arrantzara eramaten asi zan. Gaztetxo abek osabaren etxean bizi ziren Donostian Portu Kalean ogeita bigarren zenbakian lenengo bizitzan ezker. Andik ezkondu zan JUAN San Sebastián 1931 garren urtean, Maria Josepa Zubillagarekin Lezoko Guru-

tza Santuaren elizan. Emaztia Latxaga delako sagardotegian ezagutu zuan eta arat aldatu ziran. An jaiointzan ni.

Iru anaiak ontziburu izatea lortu zuten; danez gain arrantzale onak bezala ezagutuak ziran. Tomas Terranovan gaxotu zan minbiziarekin eta Donostian arrebaren etxean il zan 1957 garren urtean.


Jesús San Sebastián Lezon ezkondu zan, Mari Karmen Aramburukin eta etxegintzan amaitu zuan bere bizitza.

**YOANTZENENKO BORDAN
BERAN SUSPELA AUZOAN
JOXE TELLETXEA
ELTZAURDIA
GASPAR TELLETXEA
ELTZAURDIA
SEBASTIAN TELLETXEA
ELTZAURDIA**

Iru anai abek Tomas San Sebastianek eraman zitun itsasora.



EUSKALERRIA



Patrioiak lortu zuten izatea bere garaian. Itsasoko lana bukatu zutenean etxe berriak egiten asi ziren; Ezkondu ondotik.

LARRALDEA BASERRITIK BERAN
MARTIN JOXE MATXIKOTE MIKELPERIZENA
JUAN MATXIKOTE MIKELPERIZENA
FELIPE MATXIKOTE MIKELPERIZENA

Juan Matxikote ogeitabi urtekin joan zan itsasora.
Felipe berriz 1960 garren urtean beste bi anaiekin joan zan arrantzara.
Iru anai abek Tomas San Sebastianek eraman zituen itsasora.

SANYUNEA BASERRIA BERAN
JOXE MARI TELLETXEA ZUGARRAMURDI

MARTINEA BASERRITIK ALKAYAGA AUZOAN BERATIK
EMILIO ELORRIAGA

PITINETXEA ILLEKUETA AUZOTIK BERAN
FRANZISKO ALZA
JOXE ALZA
MANUEL ALZA

LARROTXOKO BASERRITIK BERAN
FERMIN GURTXEGI

URROLA BASERRITIK ZIA AUZOKOA BERAN
MANUEL IRAZOKI GAINZA

ALKAIAGA AUZOTIK BERAN ERROTAZAR ETXEA
FERMIN URTXEGUI

ETXALARTIK SARRIKU BASERRITIK
JOAKIN GOYENETXE IRIGOYEN

PEÑABORDA ZIA AUZOTIK BERAN
ISIDRO LAZKANOTEGUI
OLAGARAIA ETXALARKO BASERRITIK
SANZBERRO

LESAKATIK OXANGO BASERRITIK
SIMON TELLETXEA

MADALEN BAITA ZALAINZOKO AUZOTIK LESAKAN
JOANITO ALZUGUREN
MARZELINO ALZUGUREN
LUISITO ALZUGUREN

ZALAIN AUZOTIK BERAN
JUAN TOMAS ELGORRIAGA

ILLEKUETAKO AUZOTIK BERAN
EMILIO GOYENETXE

ETXELARTIK BERROETA BASERRITIK
PATXI TABERNA
PABLO TABERNA
ANGEL TABERNA

ALKAIAGA AUZOTIK LESAKAN
JOSETXO TA BITORIANO GOYA
JUANITO FAGOAGA
MIGUEL PIKABEA

AZKEN OARRAK

Naparroko arrantzaleak Pasaiko kaiatik ateratzen ziran arrantzara.

Urontziak binaka yoaten ziran lanera.

Lenengo arrantzaleak anaiarteko guda aurretik asi ziran lanean.

Anaiarteko guda bukatu arte ez ziran lanean asi Bako-txa bere baserrira itzuli zan. Nazio arteko borroka nagusia iraun arte itsasora joan gabe etxian ziran.

Lenengo urontziak lanerako artu zituztenak LAKA ta LARRA izenekoak Lekeitiokoak dira.

Arrantzara joateko bi toki berexiak zituzten.

Bat Inglaterrako itsas ertzean; legatza onenetakoakin. Pasaitik iru eguneko bidea zuten.

Bigarren tokirik arrantzara joateko onena TERRA-NOBAKO itsasertzea zeukaten; bakallu ederrenetakoa.

Beko mallan asten ziran lanean, patroyak bezela bucatzen zuten.

LATXAGA

RABINDRANATH TAGORE

INDITAR OLERKARI OMENTSUA

India! izen betea, espiritualtasun nabarmen eta zabaleko erri edatsua. Eremuz, europar lurraso erditsu ainakoa. Izkuntzez eta izkelgiz ziprirtindua, sakon-sakoneko oitura bitxiz gaiñezkatua, erlijiojera loretsuz kuin-kuin, bizilagun beltzerenez mukuru, arri ta bei sakratuz blai...

Alaxe dugu India, mitoen, ontz-begidun Buda jainkoen eta deabruen erreinua.

Ni ez naiz beñiere bertaratu, baiñan ezin esan, edozein ikuspegitik begiraturik ere, erakargarritasun aundiko ez danik. Danen begietara azaltzen dituan gain-gaiñeko edertasunez tajututako ainbeste ta ainbeste jauregi, oroitarri jainkoti ta jauretze, nun-naiko ertilariantzat, argazkilari, gogoetalarri, pentsalarri ta une onetantxe ni bezelako sentilarri ta idazlekume ezein batentzat, gogo-begiz ikus-teko, izango ez dira ba biotz-asegarri? An izan ez geranok India'ko antziñaki guztiak, arrizko poema liriku danak ederretsi bearrean gaude. Izan ere, bizi-errekaren iturburuan ikus-irudi dugun kultura misteriosu au nola ez ba miretsi?

Dauzkan bitxitasun, altxor eta jopu gizajoan bizkarretik lortutako urre-aroko jainko sabeltzar irripartsuz nagusi ba da, ez da batere arrigarri gizaki-maillan ere gaillurgailureko gizonezkorik ospatsuenen jabe izateko. Goren-gorenko oien tarteko nola aipatu gabe utzi Gandhi eta Rabindranath Tagore? Lenengoa, bizi-eredugarritz, bertakoen artean eragillerik aundienetako. Ez goaz orain ordea, oni buruz ezer geitzeko asmoz. Ta bai Tagore'ri buruz, elertirako zeuzkan gogo-joerak eta doaiak pixkat gainbegiratzeko.

NERETZA OLERKARI-IZEN BERRI BAT

Guda aurretiko egunak ziran. Artean, Batxillergo-ikasle gaztetxo nintzan. Etxean, nere aitak "Yakintza" euskal aldizkaria jasotzen zuan. Nik, jakin-miñez eldu nion ale bati gaingiroki irakurtzeko. Ta, an azaldu zitzaidan aurreneko aldiz Rabindranath Tagore olerkari yaukalaren izen bakana idatziz aipatua. Ta bertan, aren idazlan eder bat: "Erregeren postaria". Arrezkero zenbat aldiz irakurria!

Egillearen izena, nabarmena zitzaidalako-edo josia gelditu zitzaidan. Ta alaber antzerkitxo aren gaia ere, unkiagarria iruditu bait-zitzaidan. Gaixorik datzan aur baten edeskia dugu. Eta aur onen ametsa erregeren postari izatea. Zertarako? Ba, erri ta eskualdeak ikusi, ezagutu ta askatasunean bizi al izateko. Auxe zan gaia, gai errexa ta sotilla. Baiñan emen xpillutzen eta kidetzen zaigu Rabindranath Tagore aurrarekin, bere askatasun-irrikak agertuz.

Ordutik Tagore'ganako nere miresmena.

INDIAR LURRALDEA TA INGLESAK

Pelikula askotxoeren bitartez oso ezaguna egin zaigu Ego-Asia'ko Errialde edatsu au. Joan dan gizaldian, laterriak, zetorren politika-aldi berriari begira indartzen ari ziralarik, lur berrien irrikaz bizi ziran beurena zabal-tzeko.

Inglaterra'k urrutiraño eraman nai izan zuan bere agintet-almena. Gauzak orrela, guda ari zan zornatzen indiar lurretan. Ta gudaldi luze ta latz askoren ondorenez, indiar lurralde aberats au Inglatera'ko Bitoria erregeñaren agintepera ekarria izan zan.

RABINDANATH TAGORE'N JAIOTZA

Urte askotarako, India inglesen errege-ordekotza biur-tu berri zalarik, jaiio zan 1861 urtean Rabindanath Tagore, Kalkuta-uri ospatsuaren biotzean. Ametsezko uria, diotenez, Ganges-ibai sakratuaren oiñetan. Kalkuta'ren edertasuna izugarrizko mixerri tartean loratzen dan.

Brahamandar' aundizki-kasta arteko altzoan sortua dugu. Jaiio zaneke jauregi andikirentsua, bertan arnasten zan lasaitasuna-giro atsegingarria ta sendiaren tradiziozko adimen-bizikortasuna, itz batez aizeberan dan-dana, aldezko zitzaien Tagore leiñukoai gogozko ertigintzara joeratzeko bear izaten dan sentiberatuna.

GAZTE AMESLARIA

Tagore enborrean amalaugarren muskil genduan Rabindranath, azkena. Gurasoengandik erreparo geiegirik gabe ezia, irakurketa zitzaien mutil bakartiari igeslekurik atsegiñena. Beregan bildua geienetan eta irudimentsu, amets urdiñak zebilzkion buruan iraulka. Izadia, -beatz tartean suntsitzen dan orbelostotik zeru izartsu beteraño-auspo zitzaien eta olerkari-senez oparo jantzia zetorrenez, aren lilluraz olerkintzak oldarkiro deitzen zion. Amabi urte bete zituanerako oretua zeukan bere lenengo poema: "Basa loreak".

Bizitz-udaberrian Inglatera'n bitan ikusten dugu. Lenengo aldiz ikastera joana. Etzigun ordea zuzenbide-ikastaroa bukatu. Urduri ta geldigaitz errimiñak jota bizi bait-zan.

OLERKI-IDAZLE ELDUA

India'ra itzulirik, len baiño leber eta oldartsuago ekin zion idazteari. Baiñan etzitzaien iruditzen elduta-

sun betera iritxia zanik, aurtzaroko amets-uin eta ideiak ez bait-zioten nai izango zukean bezelako bul-zakadarik ematen. Alako batean, ordea, mintz-ganduxto antzeko batzuk jausi zitzaizkidan begietatik eta mundu osoaren edertasuna miragarrizko dizdiraz biotzeratu zitzaidan". Aztamuka ibiltzeari utzirik argiz bete gañez egin zion biotzak. Arrezkero, astiro-astiro izadiaren oiñetan auspezturik, aren ikaslerik miretsiena biurtu zitzaigun.

Bere izate-barrenera jexiz, luma adimenaren otseintzat jarririk, sinfonia baten antzera tajutzen asi zitzaigun olerki-lan osoa.

Rabindranath'en olerkiak, biotz-arragotik irtenak, olatuen erritmuaz joan-etorri zirkin-zarkun goxarazten dute. Orregatik, inditar onen poesiak ez dakar arbuigarriarik ezer. Ez gordin edo arruntekerizko izan ditekenik, ez-eta iñor urduri jarri dezakenik. Iturbergi ozkirri ta garde batek ur gozagarri edatea bezelaxe da Rabindranath'en liris-muz eta erlijiotasun-kutsu bakanez gañezkatutako olerkintza.

1913 garren urtean Nobel-sariaren irabazle gertatu zan.

Eta bukatzeko: ain itz eta esaera ederrez jantzi ta egituratutako bere pentsamendu dotoreak, dauden

bezela musikatu ditezkelat esatearekin esana daukagu dana.

**AITA ONAINDIA RABINDRANATH'EN
EUSKERAZLE**

Rabindranath Tagore'ri buruz erderaz itzulitako lanik naikotxo ikusia dut. Euskeraz, nik dakidla beintzat, aren lan gozoa aogozatzekorik ez genduan ezer. Zorionez, 1963'garren urtean (danok dakigun illunpe politiku artan) Itxaropena argitaldariak "Iru poema" izenarekin irarri zigun Aita Xanti Onaindia'ren itzulpen-lan bikaiña. Nik ez dakit nundik eta nola sortzen duan Aita Xanti'k astirik onelako eta bestelako lanak burutu ezezik, txairoki ta apainkiro burutzeko, alajaña! Ez du, ez, bere itzulketarekin iñoren jatorrizkoa danik lardaxkatzen, bai bait-du eskuartean dakarrena, azaltzen digun doain elertitsu berezi orrekin, ikutzen duana zimurrak lisatuz euskal liis bikaiñez margozten dir-dirka jasotzeko, itzulpen onekin egin duan bezela.

EGAÑA'TAR GOTZON

JOSU

Izen aundia da
Josu aintzagarria
zeru ta lurretan,
lurrak gora-goraka,
alaiki, gurtuten dau
inguru danetan.

Jakintza ta Almenez
bardiñik bagea da
zeru ta lurretan,
biziaren sorrera
beren eskuan dago
jakiturietan.

Aintza ta Gorasun,
gogorik onenagaz
Josu Altsuari,
Aren maitasun garrak
ez dauka, iñun, ertzik
opalduz lurrari.

Josuren maitasunak
zeru eta lurretan
ez dauka mugarik,
oldol gorri guztia
maitasun oneragaz,
gogoz, ixuririk.

Ta zu, Agirre jauna,
Josuren izenagaz
oroitua zara,
Salbatzaille berbera
izenez daroazu
goitik eta bera.

Izatez ta egitez
sendotzen daroazu
izen eder ori,
lurtar bizitz ederra,
gogoz, opalduagaz
Jaun guztiz onari.

GORETSAZUE JAUNA

Jaunak egindakoak
bedeinkatu Jainkoa
zeru ta lurretan,
Jaunaren Aingeruak
goratu Jaungoikoa
zeru ederretan.

Eguzki ta illargi
bedeinkatu Jainkoa
zeru urdiñetan,
Tximistondo ausarta
bedeinkatu Jainkoa
lurraren gañean.

Su ta bero nausiak
goratu Jaungoikoa
laba gorietan,
izotz gogor ta jelak,
bedeinkatu Jainkoa
errekaldietan.

Argi ta illunpeak
bedeinkatu Jainkoa
mendi tontorretan,
tximist eta odeiak
bedeinkatu Jainkoa
baso magaletan.

Tximistondo nausia
goratu Jaungoikoa
zure lur aundian,
zugatz eta loreak
goratu Jaungoikoa
baratz ederrean.



Iturri pozgarriak
bedeinkatu Jainkoa
zelai orlegian,
Tximistondo maitea
bedeinkatu Jainkoa
bizitz ederrian.

PAULIN

EUSKALDUN BERRIENTZAT

SUDOKU

	9			2			1	
4			1		9			6
	1			5			8	
5		4				3		1
	7		3		1		2	
1		3				8		7
	4			3			6	
6			9		8			2
	8			6			5	



zazpi erruak


BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein BBK txartelekin eta, hileroko itzelezko opariak irabazi ahal izango dituzu.

www.bbk.es

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²